

1

Jokabidea laborategian

Laborategiko oinarrizko jokabide-arauak

- Laborategi guztietan dago beti arriskuren bat, bai irakasleentzat, bai eta ikasleentzat ere. Hori dela eta, laborategian jokabide arduratsua izan behar dugu beti.
- Ez egin zure segurtasuna edo zure ikaskide guztiena arriskuan jar dezakeen ekintzarik, hala nola lasterka egitea, jolastea, bultzatzea eta oihu egitea.
- Ez jan inoiz, ez eta txiklerik edo gozokirik ere, ez edan eta ez erre.
- Ez egin inoiz aurreikusi gabeko esperimenturik.
- Joan irakaslearengana zalantzaren bat baduzu edo ezer gertatzen bada.
- Erabili beti sen ona eta jarri arreta handia egiten duzun gauza guztietan, istripuak ez gertatzeko modurik onena da eta.

1

Jokabidea laborategian

Laborategiko segurtasun- eta babes-elementuak

- Jakin non dauden larrialdietako irteerak eta beste elementu batzuk, hala nola suitzalgailuak eta begiak garbitzekoak, istripuren bat izanez gero, elementu horiek erabili behar badituzu ere.
- Eraman beti mantala laborategira. Mantalak luzea eta mahukaduna izan behar du. Ez jaso mahukak inoiz.
- Erabili laborategirako betaurreko bereziak, baldin eta erreaktibo kimikoak erabili behar badituzu. Betaurreko arruntek ez dituzte begiak erabat babesten, eta ukipen-lenteak ez erabiltzea aholkatzen da.
- Ez erabili inoiz sandaliak laborategira bazoaz.
- Ez erabili eraztunik, belarritako luzerik edo lepokorik. Izan ere, katigatu egin daitezke eta istripuren bat izan dezakezu.
- Hile luzea baduzu, buruaren atzeko aldean jaso behar duzu.

1

Jokabidea laborategian

Laborategian lan egiteko modua

- Utzi lan-eremutik kanpo bizkar-zorroa, karpeta, berokia, etab. Mahaian, saiakuntza egiteko gidoia eta oharrak hartzeko koadernoak izan behar dituzu soilik.
- Ohitu zure lan-ingurunera eta erabili behar dituzun material eta ekipamenduetara.
- Zure langunea beti garbi eduki behar duzu, bai erosotasunagatik, bai segurtasun-arrazoiengatik.
- Irakurri aldeztu aurretik saiakuntza egiteko gidoia, eta ez hasi esperimendua egiten etapa guztiak ulertu dituzula egiaztatu arte.
- Bukatzean, garbitu eta utzi erabili dituzun material eta tresnak beren tokian.
- Garbitu eskuak laborategitik atera baino lehen.